

GAZELA ENPRESEN LEHIAKETA -2016-

Startup enpresak (hasi berriak eta arrakastatsuak) aztertu eta Debagoienera egokitzeko lehiaketa

Gazela-enpresen

LEHIAKETA 2016



-OINARRIAK-

Gazela enpresen Lehiaketa Debagoieneko Mankomunitateko Garapen Agentziak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin, eskualdeko unibertsitate-mailako ikasleentzat antolatutako lehiaketa da. Lehiaketaren helburu nagusia da gazela-enpresa bezala sailkatutako enpresen jarduerak aztertzea, Debagoienera edota bertako enpresetara egokitzen saiatzea, eta bukatzeko, proposamenak ekitaldi batean aurkeztea.

Ekimen honekin jarraian zehaztutako helburuak lortu nahi dira:

HELBURUAK:

- Debagoieneko ikasleen artean enpresa inizatibaren inguruko ezagutza eta grina sustatzea.
- Debagoieneko ikasle gazteen artean ekintzailetasuna eta taldean lan egiteko gaitasunak bultzatzea.
- Debagoieneko enpresa eta ekintzailentzat ideia banku bat eratzea.
- Enpresei eta ekintzaileei esperientzia arrakastatsuen berri ematea.

LEHIAKETAREN NONDIK NORAKOAK

Lehiaketak bi zati izango ditu: 1) Talde-lana eta 2) Aurkezpena.

1) Talde-lana: 2016ko urriaren 1etik 2017ko urtarrilaren 5 arte. Estatu-Batuetako gazela-enpresen zerrenda¹ aztertu ondoren, taldeak 2 enpresa aukeratu eta landu beharko ditu, horretarako emandako fitxak betez. Talde bakoitzak 2 fitxa aurkeztu beharko ditu e-mailez (kimuberrigazela@gmail.com helbidera), pdf edo word formatoan. Epaimahaiak bi lanak baloratu ondoren, bakar bat aukeratuko du aurkezpen fasera pasatzeko, eta urtarrilaren 16a baino lehen jakinaraziko dio taldeari e-mailez.

2) Aurkezpena: urtarrilak 26 osteguna (Garaia Berrikuntza Gunea, Arrasate) Lehiaketaren 2.zatian, jardunaldi batean landutako proposamena aurkeztu beharko da jendeaurrean. Taldekideek, gehienez, 10 minutuko tartean, landutako proposamena bertaratuei eta epaimahaiari aurkeztu beharko diete. Aurkezpena euskaraz zein gazteleraz egin ahal izango da.

LEHIAKIDEAK:

- Interesa duen edonork partehartu ahal izango du, bakarka zein taldean.
- Informazioa ingelesez aurkituko dutenez, ikasleek oinarritzko ingeles maila izatea komeni da.

IZEN-EMATEA:

- Izen-emate epea: 2017ko urtarrilaren 5ean bukatuko da.
- Lotura honetan klik eginez [izen-ematea](#) egin dezakezu edo www.kimuberri.net helbidean dagoen loturatik inprimakia betez egingo da.
- Taldeko inprimaki bakarra bete beharko da, partaide guztien datuekin.

BALORAZIO IRIZPIDEAK:

Gehienez 60 puntu lortu ahal izango ditu lan bakoitzak.
Honako irizpideak erabiliko ditu epaimahaiak lanak baloratzeko:

FITXAREN LANKETA (gehienez 40 puntu):

- Ideiaren orijinaltasuna / berrikuntza: 10 puntu
- Egingako azterketaren sakontasun maila: 10 puntu

¹ INC5000 sailkapena (www.inc.com/inc5000/list/2016)



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA
GARAPEN EKONOMIKORAKO AGENTZIA



- Debagoienera egindako egokitzapena: 10 puntu
- Balantze-soziala: 7 puntu
 - Enpresak honako gaiak lantzen dituen: Ingurumenarekiko errespetua (ekologikoa, berrerabilpena,...), lurralde garapena (komunitateari ekarpena, irabazien banaketa,...) eta langileenganako politikak (partehartzea, berdintasuna, kontziliazioa,...)
- Fitxa betetzeko eta aurkezpenerako erabili den hizkuntza euskara bada: 3 puntu

AURKEZPENA (gehienez 20 puntu):

- Kalitatea: 5 puntu
- Argitasuna: 5 puntu
- Orijinaltasuna.: 5 puntu
- Hizkuntzaren zuzentasuna eta aberastasuna: 5 puntu

KONTUAN HARTZEKO DATAK:

- Urtarrilak 5: Landutako 2 fitxak e-mailez bidaltzeko azken eguna (kimuberrigazela@gmail.com).
- Urtarrilak 16: epaimahaiak aurkeztu beharko den fitxa, bietatik zein den komunikatuko die partaideei e-mailez.
- Urtarrilak 25: Talde bakoitzak aurkezpenean erabiliko duen euskarri digitala antolakuntzari bidaliko dio e-mailez (kimuberrigazela@gmail.com). Onartuko diren formatuak: ppt, prezzi eta pdf formatuak izango dira. (Ez dira onartuko beranduago bidalitako lanak).
- Urtarrilak 26, osteguna: Garaia Berrikuntza Guneko aretoan, Arrasaten, proiektuen aurkezpena.

AURKEZPEN EGUNA:

Lehiaketara aurkeztu diren talde guztiek aurkeztuko beharko dute landutako bi fitxetako bat. Epaimahaiak erabakiko du, bi fitxetatik zein aurkeztu, eta jardunaldia baino lehen taldeari jakinaraziko dio prestatu ahal izateko.

- Eguna: 2016ko urtarrilak 26
- Orduetgia: 16:30-19:00
- Lekua: Garaia Berrikuntza Guneko aretoa. Arrasate.

EGITARAUA

- 16:15-16:30 – Harrera
- 16:30-16:45 – Agurra
- 16:45-18:45 - Aurkezpenak (120')
- 18:45-19:00– Sari banaketa (15')

SARIAK:

4 sari banatuko dira:

- 1.go saria: 300€
- 200€ko 2 sari.
- 200€ko sari bat aurkezpen onenari.

Kausa oinarridunak badaude, epaimahaiak saria eman gabe utzi ahal izango du, kausak arrazoitu ondoren.

EPAIMAHAI:

Epaimahaia erakunde hauetako kideek osatuko dute:

- Debagoieneko Mankomunitateko Garapen Agentzia
- Mondragon Unibertsitatea
- Saiolan
- ISEA

EMAITZA

Fitxetan jasotako informazioa Debagoieneko Mankomunitatearen jabetzara pasatuko da eta informazio horrekin guztiarekin datu base bat sortuko du, Debagoieneko Mankomunitateko eta Kimuberriko web orrian, eskualdeko ekintzaile eta enpresen mesedetan informazio hori erabiltzeko.

INFORMAZIO PRAKTIKOA

Estatu Batuetako gazela-enpresen sailkapena izango da lehiaketaren oinarria. Urtero zerrenda berri bat argitaratzen da, sortu berriak eta azkar hazi diren enpresen datuekin. Azken 3 urtetako zerrendak erabiliko dira lehiaketako informazio-iturri bezala (2014, 2015 eta 2016).

Kontsultatu beharreko web orria: <http://www.inc.com/inc5000/list/2016>

2015 eta 2014ko zerrendak ikusteko "Prior list" atalean urtea aukeratu.

Behin urtea aukeratuta, sektoreka, diru-sarreraren arabera eta estatuaren arabera egin daiteke bilaketa.

Hauek dira sektoreak:

- Insurance
- Financial services
- Real Estate
- Consumer Products & Services
- Advertising & Marketing
- Logistics & Transportation
- Government services
- IT Services
- Software
- Health
- Food & Beverage
- Media
- Security
- Telecommunications
- Manufacturing
- Energy
- Business Products & Services
- Retail
- Education
- Construction
- Human Resources
- Travel
- Environmental Services
- Engineering
- Computer Hardware
- Business Services
- Consumer Products
- Computers & Electronics
- Logistics
- Transportation
- Defense Contractors
- Consulting

Kimuberri web orrian (www.kimuberri.net) fitxak landu eta bete ahal izateko informazio lagungarria eta argibide guztiak daude eskura. Enpresa bakoitzarekin bete beharreko fitxa ere bertatik deskargatu daiteke.

DATUEN BABESA ETA KONFIDENTZIALTASUNA.

Aurkeztu diren proiektuen ezaugarri orokorrak eta taldekide irabazleen izenak argitaratu ahal izango du antolatzaileak.

Izaera pertsonaleko datuen legea betetzeko, jakinarazi egiten zaizu izena emateko formulario elektronikoaren bidez jasoko diren izaera pertsonaleko datuak, behar bezala erabiliko direla eta Debagoieneko Mankomunitatearen erantzukizuneko izaera pertsonaleko datuen fitxategian sartuko direla.

Datu horiek jasotzerakoan ezarri den helbururako erabilera egokia izango dute: Gazela-enpresa Lehiaketa kudeatzeko.

Nahi izanez gero, datu horiekiko atzipen, zuzenketa eta ezabatze edo horien aurka azaltzeko bere eskubideak erabili ditzakezu; idatziz egin beharko duzu, Debagoieneko Mankomunitatera (Nafarroa Etorbidea, 17 (Arrasate-Gipuzkoa)).